



PUTAREN BAKARRIZKETA EROETXEAN

zuzendaria | AINARA GURRUTXAGA
antzezlea | LAURA PENAGOS
testua | FRANCA RAME ETA DARIO FO

02 TRAMA



Emakume bat
eroetxe bateko
gela batean
dago bakarrik,
aulki batean
eserita eta
kamaraz
inguratuta,
ikusten ez
dugun doktore
batekin
hizketan.
Emakumea
prostituta da,
eta elkarrizketan
bere istorioa
azalduko du.
Horrela, hainbat
gai azaleratuko
dira, esate
baterako,
sexualitatea,
bortizkeria,
klasismoa eta
feminismoa.

03 FITXA ARTISTIKOA

EKOIZPENA

Garaion Sorgingunea eta MANVCODIATA antzez-
sorkuntza

TESTU ORIGINALA

Franca Rame eta Darío Fo

ZUZENDARIA

Ainara Gurrutxaga

ANTZEZLEA

Laura Penagos

ITZULPENA ETA MOLDAKETA

Xabi Martinez de Lezea

ESZENOGRAFIA ETA ARGİ TEKNİKARIA

Elias Martinez de Lezea

ARGAZKIAK

Iñaki Aldatzeko



04 ESZENA

Gure apustua gutxienezko balioa da: kamera bat, aulki bat eta emakume bat eszenatoki gainean. Giro lizun eta garratza sortzeko maximorekin, aktorearen gorputza espazioan zehar mugitzen da, bere bakarriketa bertan ez dagoen mediku bati eta eszenan gorputzaren sinpletasunarekin gatibu hartzen duen publiko bati zuzentzen dion bitartean. Entzierroaren sentrazioa umorea erabiliz konpentsatzen da, tresna horrek baltsamo bat bezala funtzionatzen baitu ikuslearentzat.

AINARA GURRUTXAGA

Zuzendari, antzezle, idazle eta irakaslea. Dejabu konpainiaren zuzendari artistikoa da Urko Redondo eta Miren Alcalarekin batera. Antzerki sortzailea, Komunikazio zientzietan lizentziatua (EHU 1995-1999), Hizkuntza, komunikazio eta semiotikan masterduna (ILCLI Institute, 2001) eta Arte Eszenikoetan graduatua da London International School of Performing Arts eskolan (2005-2007). Ainarak hainbat antzezlan sortu eta zuzendu ditu. Aipatzekoak 2011an sortutako Gizona ez da txoria saritua (Subotika Theatre festivalen antzezle onenaren saria, ACT jaialdian lan onenaren saria), eta Gure bide galduak (2015) eta Arrastoak (2016) biak ere Donostia Antzerki Sariak jasotakoak. Antzezlan hauen testuak argitaratuta Biran lan egin du antzezle gisa Portugal, Italia, Frantzia, Erresuma Batua, Espainia, Txekia, Serbia, Bosnia eta Ecuadorren. Ikusentzutekoetan Mireia Gabilondoren Amaren eskuak filmean, Koldo Almandozen Belarra laburrean eta Tamara Garciaren Euria ari du web-seriean (Tabakalera LABO egitasmoan) paper protagonistak egin ditu eta berriki, Fernando Gonzalez Molinak zuzendutako Ofrenda a la tormenta filman ere aritu da Gaur egun antzezle, idazle eta zuzendaritza lanetan dihardu proiektu ezberdinetan.



Maite Ortega Zubikarai 688680925 alara@alara.eus

LAURA PENAG

Antzezle-sortzaile eta irakaslea. Bogotako Teatro Libre Eskolan graduatu zen. Goiz hasi zen antzerki irakaskuntzan. Kolonbiako unibertsitate entzutetsu bat baino gehiagotan lan egin du irakasle gisa eta hainbat muntaia profesionaletan aritu da aktore moduan. Besteak beste, Workcenter Grotowski eta Thomas Richards taldearekin jarraitu du bere trebakuntza, Bartzelonan eta Italian. Gorputz eta ahots formazioak ematen ditu antzezle eta eszena arloan. 2021 eta 2022 urteen artean, antzerki-bira egin zuen "Atzerrian lurra garratz" lanarekin, istorioaren aktore protagonista gisa, Artedrama eta Huts Teatro plataforma eszenikoaren eskutik. Gaur egun "Behi Jaso" lanean dabil Boga-Boga Produksioak konpainiarekin, eta beste hainbat egitasmotan MANVCODIATA antzez-sorkuntza proiektuarekin. Gainera, bere metodologia ikertzen eta garatzen jarraitzen du prestakuntzari eta bere sormen-prozesuei begira.



Maite Ortega Zubikarai 688680925 alara@alara.eus